

Bezeroekiko harremanak

Zuzeneko salmentan, arreta zuzena izango dugu gure bezeroekin lurretako Aho-Gozo lokalean zein azokatan. Produktuak erosten dutenak elikagaiak dastatzeko aukera izango dute erosi aurretik, honek kontserba berriak ezagutarazteko modua emango digu.

Web bidez ditugun bezeroak zainduko ditugu eta haien eskariak ahalik eta arinen, agindutako epean, bideratuko ditugu, hauen jarraipena eginez eta etxeetara egoera egokian heltzen direla ziurtatuz.

Soberakinak ematen dizkiguten Merkatal zentroekin harreman oso estua izango dugu; hilabetearen amaieran emandako soberakinen kantitateari buruzko zehaztasunak emango diegu eta guk gure publizitatea egiten dugunean, gurekin elkarlanean dauden merkatal zentroak aipatuko ditugu, gizartean eragiten duten onurak aipatuz (soberakinen kantitateak nora bideratzen ditugun, kiloak...eta abar.) Horrela beraiek beraien donazioekin egiten duten onuraren berri emateaz gain, beraiek ere beraien irudi korporatiboa hobetuko dute.

